


www.noaia.com

# Noaia!!!



Benito Lertxundi solasean,  
Nafartarrak taldearen eskutik

Gorka Urbizu, Berri Txarrak  
Usurbilen eskainitako kontzertuetaz  
“oso oroitzapen onak dauzkat”



# OSASUN GIDA 2011



**USURBIL  
OPTIKA**

Entzumeneko aparatuak • Igeniekuko lupoak neurrira eginda  
BEHERAPE NIAR eguzkitako betaurrekotan

Zubiaurrenea, 10. • ☎ 943 370 269 • 675 708 654

**50€-ko  
BALEA**

BETAURREKO  
PROGRESIBOETAN  
(HOYA)



**FISIOTERAPIA ZENTROA**

**Ibaiondo**

Fisioterapia  
Osteopatia  
Errehabilitazioa  
Masajeak

Ola Kalea, 12 - behea, ezk. LASARTE - ORIA Tel / Faxa: 943 370 306



**Kima**

MASAJE LEKUA

-Kirol masajea  
-Masaje terapeutikoa  
-Kolonaren hidroterapia  
(idortasuna eta haize arazoak hobetzeko)

☎ 943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA



**iturralde  
botika**

Tomas Iturralde botika  
R.P.S. N.º 88/07

- ✓ Maisu formulak
- ✓ Dermofarmazia
- ✓ Produktu Homeopatikokoak

Borda berri 1, 20170 USURBIL ☎ 943 36 33 95

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

Albistea iruditan!!

## Errausketa gaietan adituak direnak bisitan izan dira

Europa mailan erreferenteak diren bi aditu izan ziren pasaden astean Usurbilen, atez atekoaren inguruko jardunaldietan. Alfonso del Val Perito judizial lanetan aritua da eta Madrilgo fiskaltzak eskatuta Valdemingomezeko errauste planta ikertzen aritu zen.

Beste gonbidatua, Joan Marc Simon, hondakinen eta errausketa gaietan aditua da "Errausketaren kontrako eta Zero Zaborren aldeko mugimenduak Europan eta munduan" izeneko hitzaldia eskaini zuen. Aurreko ostiralean, Usurbilen zela aprobetxatuz, atez ateko bilketa ezagutzen izan zen Joan Marc Simon.



USURBILGO ATEZ ATEKOA EZAGUTZEKO AUKERA IZAN ZUEN JOAN MARC SIMONEK.

## Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Egunekeo Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 373 228	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 361 412	Oa botika	943 361 217	Telefonica	1004
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

**Noaua!**

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com) / [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Alaitz Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, [publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com).

Erredakzio kontseilua, [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com): Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbiet, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IMANOL UBEDA

## Harriturik

**H**arriturik nabil azken hilabeteotan. Poza eragiten duen harridura dela esango nuke. Hemen (Zubietan), orain (duela hiru aste), 2.000 lagunetik gora bildu ziren dantza "moderno" bat egiteko. Eta egun argiz, eta alkoholik gabe tartean, eta Lady Gagaren kantu baten erritmoan! Tumatxa, Zakilixutek esango lukeen moduan.

Nire garaiko askok, Madonna gorrotatzen genuen, Michael Jackson eta antzekoak *komertziantenazkan*te batzuk iruditzen zitzaizkigun... Baina gu ere aldatzen ari gara, eta Michael Jackson hil zenean, mozortu arte entzun genituen bere kantuak. Eta orain, artista handi bat izan zela aitortzeko inongo erreparrorik ez dugu.

Harritzeko modukoak dira, alabaina, Ingemarren ipini dituzten gurutzeak. Baina harridura horrek asko zor dio etsipenari. Langileak kanpaldian dira duela aste batzuetatik hona. Egoera ez da batere samurra izango. Egunen joan etorrian, akaso zenbaitzuk ohitu ere egingo ziren. Baina mezua lehen egunkoa bezain argia da: ez dute hilik bizi nahi. Euren bizimodua eta euren ondorengoan etorkizuna dagoelako jokoan. Hori da Ingemarrek langileen gurutze-bidea.

Ze bide bazterreko gurutze horiek eragindako harridura baino latzagoa behar du izan kale gorrian geratzeak eragin dezakeen izua. Berezik, langabezia nagusi den garai ilun hauetan...

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

### Ika-mika !

## Gure hondakin organikoekin zer gertatzen den

**U**surbildarrek esfortzu garrantzitsua egiten ari dira beren hondakin organikoa konpost bihurtu dadin.

Horren aurrean, udal gobernua ez du gaitasunik azaldu hondakin horiek benetan konpost bihurtuta herritarrei erakusteko.

a) Biltzen den hondakin organikoa, atez ate sistemarekin behartuta biltzen dena, zabortegean bukatzen omen du. Lapatzeko plantara usteldua eta konpaktatua eramaten delako ez da konpostagarria. Antzeko egoeran omen dago Hernani eta Oiarzunen biltzen dena.

b) Zubietako konpost planta desmantelatu dago. Zubietarrak aurka azaldu ziren konpostatzeko makinak martxan jarri zirenean, usaiak eta zaratak zirela-eta. Makinak kendu zituzten, horietako bat San Marko mankomunitatearena, guztira 350.000 euro inguru kostatuak, 4 hilabete pasa dira eta ez dakigu non dauden.

c) Urbil inguruan beste konpost planta proiektatua zuen udal gobernua; Usurbil, Hernani eta Oiarzuneko hondakinak tratatzeko, eta Euskal Herriko Epaitegi Gorenak legez kanpokoak jo du orain dela egun batzuk. Lehendik Arratzain inguruan beste bat egiteko

asmotan ibili ziren baina ez zen ezertan geratu.

d) Udal gobernua ez du oraindik "zabor bidaiariaren" fenomenoa onartzen, eta ondorioz "bidaiatzen" duen hondakin organiko hori usurbildarra ez dela aitortzen du. Hondakin organiko hori zabortege batean bukatzen du.

e) Urteak daramatzagu autokonpostatzen Usurbilen, azken bizpahiru urteetan era zabalago batean, baina udal gobernua ez du azterketa zientifikoa bat bera ere egin jakiteko zenbat konpost sortzen den, zer nolako kalitatekoa den, zertan erabiltzen den. Produktio zerbaki batzuk publiko egiten dituzte baina estimazio hutsak dira, asmakizunak ez esatearren. Autokonpostatzen herritarrek egiten duten esfortzuak errespetu gehiago merezi du. Egia ezagutzearen errespetua.

Udal gobernuaren ahaleginak porrotek porrotera joan dira. Porrotak izkutatzen ahalegin gehiago egin du alkateak, hondakin organikoa era eraginkor batean konpost bihurtzen baino.

Datu, informazio eta iritzi gehiago: [www.hlusurbil.net](http://www.hlusurbil.net)

Usurbilgo Hamaikabat

### Ika-mika !

## Animo hitzak

### Ingemarrek langileei

**A**nimo! Gau eta egun, hotz ala bero, txandaka Ingemar aurrean biltzen zareten langileoi, zuen arteko batasuna ezinbestekoa baita momentu gogor hauetan.

-Animo langileen ordezkariel! Bileraz bilera buruhauste asko tartean, lan bikaina egiten ari baitzarete arazoi irtenbide justu bat aurkitu nahian.

-Animo familikoei! Etxean jasaten baititugu langile bakoitzaren ezinegon, umore txar, tripako min eta abar.

Animo guztiei!

Familiarteko bat

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. Ale bakoitzean ez dira bi Ika-mika baino gehiago argitaratuko. Ika-mika bat baino gehiago iristen bada, Noauak idatzi honietako bat hurrengo ale batean argitaratzeko eskubidea izango du.

Noauak ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: apirilak 15. Idatzia ekartzeko azken eguna: apirilak 11.

## Udal lanpostuen balorazioa eta bere araudi sistema hasieraz onartu dira, desadostasunen artean

**L**anpostuen baloraziorako sistemaren arautegia hasieraz onartu zuen udalbatzak azken osoko bilkuran. Araudian bertan aipatzen denez, "balorazioak eginez, erakunde baten barruan lanpostu desberdinek duten balorea eta garrantzia erlatiboa jakin daitezke eta giza baliabideei dagokienez, ordainsarien banaketarako lanpostu horiek sailkatzea ahalbidetzen dugu".

Horrekin batera, "Lanpostuen Baloraziorako Metodoaren Eskuliburu Teorikoa" eta udal eta Kirol Patronatuko Lanpostuen balorazioa ere hasieraz onartu zituen udalbatzak. Asmoa, diktamenean jasotzen denez, udal organigrama eratu eta lanpostuen funtzioen deskribapen zehatza egitea da, udalen lan karga handitu dela jakinik, kalitateko zerbitzua ematen jarraitu eta Udalaren kudeaketa publikoa hobetzeko.

Hartara, diktamenaren arabera, "ezinbestekoa da gaur egungo udal antolaketan zein honen antolamendu tresnetan sumatu diren akats edo hutsuneak konpontzea".

Proposamena udalbatzara ekarri aurretik, udal eta sindikatuetakordezkariek artean bozkatu zen. Udal ordezkariak eta LAB sindikatuko ordezkariak alde agertu ziren artean, ELA sindikatuko ordezkariak aurka bozkatu zuten.

### Alegazio epea, orain

Gaia batzordean landu zenean bozketan gertatu zena, joan den martxoaren 29ko osoko bilkuran islatu zen gero. Mahai gainean uzteko eskaerak egin ziren.

Aralarretik gaia lantzeko baliatu den prozedurarekin desados agertu ziren. "Akatsak ikusten ditugu", adierazi zuen Joxe Ramon Furundarenak. PSE-EEtik Amaia Goyaranek gai hau lantzea 12 urtez eginiko eskaera izan dela gogorazi zuen eta dei egiten zuen, esanez, "goazen oinarri batetik hasera". EAJ-PNVtik ere arazoak zeudela aipatzen zuen Iñaki Illarramendik. Alkarbide udal taldearen izenean, Luis Mari Ormaetxeak gai honetan, "iluntasun informatiboa nagusi" zela adierazi zuen, langile batzuen eta sindikatu nagusiaren arteko tentsioa nabaria dela esateaz gain. Lanari berriz ekiten hasera dei egiten zuen Ormaetxeak, onartzera zihoazena urtero berrikusten aritu beharrean.

### "Lan tresna bat mahai gainean"

Udal gobernu taldearen izenean, Xabier Mikel Errekondok lanpostuak modu txukunenean jasoko zuen formatua gauzatzeko asmoa izan arren, gaiak jorratu duen bidea ez dela perfektua izan adierazi zuen, ezin dela denek gustura uzteko modukoa izan. Gogorazi zenez ordea, "ez da hasi eta bukatu den lan



UDAL LANGILE BATZUK, EUREN ALDARRIKAPENA EGITEN.

bat, hutsune bat dokumentatzen du eta hortik aurrerako bidea ireki. Lan tresna bat jartzen du mahai gainean".

### Hiru bozketa

Gai zerrendako puntu hau hirutan bozkatu zuten. Lehenengoan, mahai gainean utzi edo ez erabakitzeke eta berdinketa gertatu zen. Gobernu taldeak aurka bozkatu zuen, EAJ-PNV, Aralar eta Alkarbideko udal ordezkariak alde eta PSE-EEko udal ordezkaria abstenitu zen. Bigarren bozketan, emaitza bera errepikatu zenez, alkateak bere kalitatezko bozka eskubidea baliatu zuen berdinketa hautsi eta gaia mahai gainean ez uzteko. Honenbestez, gobernu taldeak udalbatzara eramandako proposamena bozkatu zuten udal ordezkariak. Aurrera atera zen, gobernu taldeak eta PSE-EEko udal ordezkariak babestuta. Gainerako udal ordezkariak aurka bozkatu zuten. Hamar eguneko tartea egongo da alegazio edo iradokizunak aurkezteko.

## Behin betiko onartu dira 2011ko udal aurrekontuak

**1** 4.195.191 euroko udal aurrekontuak izango ditu Usurbilgo Udalak 2011. urte honetarako. Gehiago osoz onartu zituen udalbatzak, martxoaren 29an burutu zen osoko ohiko bilkuran.

Gobernu taldeko eta Aralarreko udal ordezkariak babestu zituzten, aurka bozkatu zuten EAJ-PNV eta Alkarbidek, eta PSE-EEko ordezkaria abstenitu zen. Aipatu diru kopuru horretan udal aurrekontu propioak eta Kirol Patronatukoak txertatuak daude. Besteak beste,

5.412.117 euro ondasun arruntan erosketetara bideratuko dituzte, 3.401.091 euro inbertsio errealetara edota beste 3.689.630 euro pertsonal gastuetara. Erreklamazio bakarra aurkeztu zen alegazio epean, baina ez da aintzakotzat hartu. Legegintzaldiko azken udal aurrekontuak izango dira.

### Plantilla organikoa ere, aurrera

Udal aurrekontuekin batera, 2011. urterako plantilla organikoa ere behin betiko onartu zuen udalbatzak, azken osoko bilkuran. Gobernu taldeak alde

bozkatu zuen, abstentziora jo zuten EAJ-PNV, PSE-EE eta Aralarrek eta Alkarbidek aurka bozkatu zuen.

Bestalde, aurtengorako udal Lanpostuen Zerrenda hasieraz onartu zen gobernu taldearen eta PSE-EEko udal ordezkariak babesarekin. Aralarreko ordezkariak abstentziora jo zuten eta aurka bozkatu zuten EAJ-PNV eta Alkarbide udal taldeak. GAOon udalbatzak harturiko erabakia argitaratuta, hamabost egunez jendaurrean jarriko da. Tarte horretan inork erreklamaziorik aurkeztuko ez balu, behin betiko onartutzat joko da.

KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

## Kirola eta kiroltasuna



**O**raingoan asteburuan kirolaren inguruan jazotako gertakari baten inguruan hitz egitera natorkizue.

Eskolarteko kirolean gertatu da. Ez dakienarentzat esan badela ikastoletan (ikastetxeetan ere pentsatzen dut hala izango dela) Eskola Kirola ize-neko programa bat, non gaztetxoenei Lehen Hezkuntzatik hasita kirola ezagutzen eta maitatzen erakusten zaien: hiru hilabete egiten dituzte, oker ez banago, kirol diziplina batean eta gero aldatu egiten dute beste batera. Eta batean zein bestean kiroltasunez jokatzeko erakusten zaie, taldekideak eta aurkariak errespetatzen, kirolak dituen onuretzat jabetzen... Eta Usurbilgo kasuan, gaztetxoenei ez ezik, guraso-ei ere erakusten eta ohartarazten zaie kirola adin horietan (eta gerora ere hala behar luke) ondo pasatzeko dela, gozatzeko eta ez gazteak lehiakortasun sutsuan sartzeko, batek bestea gutxiesteko edo antzerakoetarako. Eta debekatu egiten zaie partidetan jokalaria zein arbitroei irainak edo komentario ezkorrak egitea edo botatzea. Bada, asteburu honetan 10-11 urteko gazteen eskubaloï partida batean aurkariak gure herritarrak zapaldu egin dituzte, iraindu,



“mehatxatu” eta kikildu. Eta ez jokalariek bakarrik, bertara gerturatutako guraso eta senideek ere jarrera bera izan omen dute partida osoan. Hori onartezina da!! Eta gertakari honen aurrean, txalotu egin behar ditut nik pertsonalki Usurbilgo gurasoak, joko horretan erori ez daitezela aurrez bilera egiteaz arduratzen direnak. Ez litzateke txarra, praktika hau gainontzeko ikastola eta ikastetxeetara ere zabalduko balitz, horrela gazteek aukera izango bailukete beste lekuetara joaten direnean partidaz gozatzeko eta bide batez hango jendea ezagutzeko.

KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

## Aginte-panela



**L**anetik atera berritan etxeratzeko gogoz zen. Autoa ireki baino lehen, lau zurrupadatan erretako zigarroa lurrera bota eta oinekin itzaltzeraino zapaldu zuen. Poltsikotik ateratako sakelekoari, ordua begiratzeko ohituraz, azken begiratu eman eta atzeko eserleketan geratu zen txamarraren poltsikora eraman zuen. Auto barnean sartu eta martxan jarri aurretik segurtasun uhalaz edo gerrikoaz lotu zuen bere gorpuz enborra. Lankideei agur egin eta leihoa itxi orduko jarri zuen martxan bere abiada handietara iritsi daitekeen autoa. Bazihon etxera bidean laurogeiko marka gainditu ezin den errepidean. Bakarrik, nekatuta eta asper-tuta. Irratia piztu zuen konpainia apur baten ordezkotik, baina emisora berezirik bilatzen jartzeko asmorik gabe. Presaka, baina errepide-lege hausterik gabe etxera iritsi nahi zuen lehenbailehen. Punta-puntako orduetan bezala, kotxe ilara luzeak eta abiadura erritmo desberdinak. Askotan erradarrek eragina. Egun hauetan kostatzen denarekin lana edukitzea eta dirua irabaztea... erradarraren despiste batean garesti ordaintzeko moduan! Isunaren paper zuriak ere karterak zurrutuz ditu. Beraz, egoeraren jabe den heldu baten gisan, kontu izan zuen... kotxearen salpikaderoari begira eta begira, bazterra jo zuen arte.

SANTUENEA

PAKO AGUDO

## Berrikuntzak

**Z**aila oso zaila da geure auzo honetako kronika idaztea eguneroko ikusten ari garen berrikuntzez hitz egin gabe. Negu goibelarekin batera zubia pasa eta Santueneak ematen zuen itxura grisa zen. Hormigoi kolorea zen nagusi gurean, hautsa, zarata, putzuak, obrak eta obrak azken finean.

Zorionez udaberriarekin batera grisa ere desagertzen ari da eta udaberriko lehen egun hauetan koloreak ikusten hasiak gara semafora pasa eta eskubirantz harterakoan. Obrak ahaztu eta berrikuntzaz hitz egin genezake dagoeneko. Zenbat bider pentsatu dugu zer itxura izango ote zuen gure eskubaloï zelai zaharrak obrak bukatu eta gero? Ba hona hemen, berrikuntzen emaitzak! Nostalgia momentuak izango ditugu eskubaloï zelai zahar horretan bizipen ahaztezinak bizi izan genituenok.

Era berean orain beren etorkizuneko oroitzapenak bizitzen ari direnak ere beraien auzo berriaz gozatzeko aukera iritsi zaie. Orain denon esku dago berrikuntza hauek zaindu eta koloreak ez galtzeko erronka. Tristeia izango baitzen hemendik urte gutxira berriro ere grisa nagusitzea Santuenean.



AGINAGA

MA ANJELES ARRUTI

## Mendi Lasterketa



**E**guraldi txarrak itsusitu zuen pixka bat, baina gainerakoan oso giro polita bizi izan zen igandean. Berrehun lagunek parte hartu zuten eta tartean hamalau emakumek. Aupa neskek! Hainbeste jende parte hartzaile eta beraiekin batera beste hainbat senitarteko, lagun eta herritar ugari bildu ginen Aginako frontoian. Irteeran denak batera ziren baina banaka ailegatu ziren, zauritu arin bat edo beste ere izan zen.

Esan behar dut plaza oso ondo jarrita zegoela, bi mahai handi. Batean fruta eta edariak, eta nolako aukera ere platan, naranja, sagarra bi hegaletan eta erdian ura, Kas, Coca-cola eta abar. Beste mahaian, salda beroa, haragi eta txorizo egosia gure "Aldapak" jarria eta hainbeste patata tortilla "Etxebeste" bi etxekoandreek eginda. Denek ere badute meritu ederrik, lerro hauetatik gure eskerrik beroenak.

Jana korrikalari eta hurbildu ziren guztientzat izan zen. Eskerrik beroenak ere babesle guztiei, euren laguntza gabe ez baita posible horrela antolatzea, nola sariak eta jan-edariak hainbeste lagunentzat. Azkenik esan nahi dut Agina



hain biztanle gutxiko herria izanik, gauza handiak antolatzeko gai dela, zer poza ikustea gure gaztedia nola elkartzen den elkarri laguntzeko. Esan beharra baitago guk igandean oso polita eta ederki ikusi genuela baina horren atzean ezkutuko lan asko dago, bideak garbitu, zintak jarri eta abar... "Aurrera gazteak" eta nire iritzia antolakuntza lanean aritu zirenentzat; zuentzat hamar puxtarri.

Milesker horrelako ikuskizunak jartzeagatik eta herriari bizia emateagatik.

ATXEGALDE

UNAI AIZPURUA

## Duela 58 urte...



**2**069ko apirilaren 8a. Unibertsitaterako lan bat. 2011ko egunkari bat aztergai begi aurrean, kalitate txarreko paperez eta plastikoz estalia. Erlikia bat hain zuzen. Antropologiako klaserako, herriko liburutegiko hemeroteca zaharretik hartua. "Errauskailuaren lehen harria Zubietan", halaxe dio albistearen izenburuak. Errauskailua? Zubietan? Duela 58 urte? Harrituta aitonarengana jotzea erabaki dut, berak 28 urte zituen garai hartako kontuak aditzera. Zorionez, memoria ona du oraindik. Berarekin hizketan jarri eta atez atekoaren lehen urratsak, galdeketa, errauskailua, manifestazioak, moratoria, flash mob-a, Berri Txarrak, bertso afaria, errota-txoak... Txundituta aditzen diot aitonari. Ezin sinestu nabil horrelako ideia eta proiektuen aldeko jendea egon zenik garai hartan. Eta nik atez ateko sistema "betikoa" zelakoan. Ezin ulertu nenbilen errauskailuaren inposaketa. Guztion osasuna jokoan jartzea, interes ekonomiko hutsagatik? Gustura ekarriko nituzke gaur egunera agintari horiek gaur egun zer nolako aire kalitatearekin bizi garen ikustera. Gustura esango nien 2011ko herrikideei lortuko zutela. Munstro zitala garaituko dutela. "Aire garbiak bira nazan, herriak ezina ekinez egina" izenburudun lana hastera noa...

ZUBIETA

XABIER ARANBURU

## Betiko leloa

**L**arunbata, arratsaldeko 16:30ak eta oinez joan behar Usurbilera lagunak ikustera. Aita siestan eta ama sofan botata telebistari begira. Inork ez nau lagundu nahi eta ni betiko leloarekin: "Ama, motorra behar dut", eta ama ere berearekin: "Fundamentua ... Konfiantza ... Arriskua ...". Autobusak orduro eta kilometro eta erdiko bidaiaetik 1,15 euroko lapurreta -hau bai, gurasoek ordaintzen dute-. Baina auzoan bizitzearen okerre-na, parrandak dira. Gaueko 3:30ak izan eta etxean 4:00etan egon beharra. Hiru aukera:

-Lehena. Taxia hartzea. Esertzeagatik bakarrik 1,50 euro.

-Bigarrena. Gurasoei deitu eta hurrengo eguna etxea garbitzen pasatzea.

-Hirugarrena. Oinez joatea, erdi balantzaka, erdi lotan.

Hau da auzoetako gazteak dugun arazoetako bat. Konponbideak bi dira:

-Gaupasa egin eta hurrengo goizean itzuli.

-"Ama, motorra behar dut".



## Ricardo Crespo izango da PSE-EE alderdiaren alkatetzarako hautagaia

**G**ipuzkoako PSE-EE alderdiak aurkeztu ditu datozen foru eta udal hauteskundeetarako hautagaiak nortzuk izango diren: Ahaldun Nagusi izateko, Miguel Buen; Batzar Nagusietako lehendakartzarako bigarren Rafaela Romero proposatzen dute, eta Usurbilgo Udaleko alkatetzarako hautagai gisa, Ricardo Crespo usurbildarra. Urte luzez sozialisten udal ordezkari lanetan aritu den Amaia Goyaran ordezkatu du Crespok, zerrenda buru gisa.

Gipuzkoako Gazte Sozialisten Koordinatzailea, 2009ko arazoaz geroztik. Amaitzean den legegintzaldi honetan, Lazkaoko udal ordezkaria izan da. Zientzia politiko eta administratiboetan lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean, egun Gipuzkoako Gobernu Ordezkari zuzendakari lanetan dihardu. Aurreko hauteskundeetan zerrendan bigarren postuan joan zen, orain aipatu moduan, PSE-EEko zerrenda buru gisa aurkeztuko da maiatzaren 22ko udal hauteskundeetara. Urte luzez sozialisten udal ordezkari eta bozeramaile izan den Amaia Goyaran ordezkatu du zerrenda buru gisa, Ricardo Crespo usurbildarrak.

Iragan astean Sutegin burutu zen hautagai sozialistaren aurkezpen ekitaldiko bere lehen hitzak, Goyarani zuzenduak zeuden. "Eskerrak eman Amaiari. Urteetan lan gogorra egin du udaletxe honetan. Bihotz bihotzez eskerrak", adierazi zuen Crespok.

### 5. edukiontzia alde

Alkatetzarako hautagai sozialistaren proposamenen aurkezpena, hiri hondakinen kudeaketatik hasi zuen. Bosgarren

edukiontzia nahi du herrian, "ezin baita ondoeza eta gehiegizko aparteko gastua sortarazi". Sistema eraginkor eta garbiago baten aldeko apustua egiten du.

### Eskola publikoa

Krisialdi ekonomikoari lotuta, Ingemarreko enpresan bizi duen egoerari erreferentzia eginez, egun Udala laguntzen ari dela baina "ez da nahikoa" zioen. Ekimen gehiago falta dira lan arloan; hala nola, saltoki txikiak babes-tea, enplegua sortzea... Etxebizitza arloan, "babestutako alokairuaren aldeko apustu zintzoa egitea" eskatzen du. Baita oro har, babes ofizialeko etxebizitza gehiago bultzatzea ere, Sekaña eta Agerreazpi eremuko egitasmoak PSE-EEkoei ez baitzaizkie nahikoak iruditzen. Hezkuntzan, Usurbilen eskola publikoa izateko ahaleginak egitea eskatzen du.



RICARDO CRESPO ETA RAFAELA ROMERO, DEMA-PLAZA ONDOAN.

### Bosgarren edukiontzia, "zetzutasunera itzultzeko"

**H**auek dira nabarmendu zituen Euskotreneko pasabideak kentzea, bide-gorria jartzea, komun publikoak eta adinekoei zuzenduriko ekintza parke bat kokatzea Artzabalen edota Puntapax eta Kalezar lotzen dituen bidean espaloia egokitzea. Askatasun eta eskubideekin konprometitu gisa aurkeztu zuen Sutegin bertan Cresporen alboan egon zegoen Batzar Nagusietako lehendakari Rafaela Romerok. Euren eremu politikoak herritarrek eta euren kezkek osatzen dutela zioen.

Gipuzkoa eta Usurbil solidario, baketsu, eta ekonomia zein inguru-

men ikuspegitik, hobe nahi dute sozialistek. Usurbildarrek, Romeroren hitzetan, eta atez ateko bilketari erreferentzia eginez, "zetzutasunera itzultzeko merezi dute". Bere iritziz udalari honetan nagusi den zikintasunari, zaborren turismoari, eta atez atekoak eragin duen giro txarrari amaiera emateko bosgarren edukiontzia proposatzen du, berriz ere Batzar Nagusietarako lehendakari aurkeztuko den hautagaiak. Langabetu eta bazterketa egoeran dauden herritarrak aurrera ateratzeko beharrez ere mintzatu zen Romero. Azkenean, bere esanetan, "gure ametsetako protagonistak pertsonak dira".

**LATAILLADE**  **ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA  
MANTENIMENDUA ETA  
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 365 348 · 609 888 021

**Poxpolin**

MERTZERIA

943 36 82 06  
Zubiaurrenea 3, baxua

Andoni Errazkin

**Xukin**  
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

**USURBIL**

663 08 76 71 • 943 24 34 65



## Harrera bikaina izan dute Soinurbil Musika Asteko ekitaldi denek

**U**rteko kultur ekitaldi garrantzitsuenen artean kokatu da merezimendu osoz Soinurbil, Zumarte Musika Eskolak antolatzen duen Musika Astea. Eskaintza bezain ona izan baita herritarren erantzuna.

Sutegiko eserleku denak bete ziren Zumaia zein Zumarteko Musika Eskoletako ikasleek eskaini zuten saioan. Ikasitakoa erakusteko aukera izan zuten bateko zein besteko instrumentu talde ezberdinek. Gauza bera gertatu zen lehen eguneko opera saioarekin.

Mac Jeara's taldekoen saioak ere arrakasta handia izan zuen; polita eta atsegina izan omen zen kontzertua. Igandean, Trintxerpeko Illumbe Musika Bandarekin amaitu zen Musika Astea. Eguraldiaren ondorioz, kalejirarik ez baina kontzertua eskaini zuten frontoian.



OPERAZ GOZATU, ORGANOA EZAGUTU, IKASLEEN SAIOAK ENTZUN...  
JOKO ASKO EMAN DU AURTENGO SOINURBIL MUSIKA ASTEAK.

2011  
**LABUR BIRA**  
FILM LABURREN VIII. ZIRKUITUA

APIRILAK 8 OSTIRALA  
22:00H SUTEGIN DOAN

LABUR BIRA

Usteaketa 1000

Albaitza Foru Aldeko Berretsiak Fundazioa

Noaua!!  
www.noaua.com



## “Alabak lagundu dit nire hizkuntza berreskuratzen”

Etxeko joerak umeentzat eredu izaten dira, hau da, etxean jaso, ikusi, sentitu eta entzuten dutena barnatzen dute; hizkuntza bezala. Horren garrantziaren jakitun, Alex Ramos eta Itsaso Irazusta lasartearrek eta Amaia Arregi eta Jon Iraola hernaniarrek gaztelera hitz egiteko zuten ohitura aldatu, eta euskaraz bizitzea erabaki dute.

**A**lexek eta Itsasok bi alaba dituzte: Alazne, 7 urtekoa, eta Araitz, 3 urtekoa. Itsaso berez euskalduna da, guraso euskaldunak ditu, baina lagun erdaldunak egin zituen eskolan eta euskara erabiltzeko ohiturarik ez du izan urtetan. Alexek, berriz, Eskola Publikoan bakarrik jaso izan zuen euskara, astean bi orduz, frantsesa edo ingelesa bezala. Bikote arteko hizkuntza gaztelera izan da beti, baina egoera aldatu egin zen Alazne jaiotzearekin. Alex euskara ikasten hasi zen eta Itsaso, berreskuratzen.

“Ni Alaznegatik, alabagatik hasi nintzen. Orain dela 6-7 urte AEKn hasi nintzen eta pixkanaka-pixkanaka euskal giroan sartu naiz”, dio Alexek. Itsasok, berriz, hala gogoratzen du: “Nik pentsatzen nuen: ni euskalduna naiz eta nik euskara nahi diot erakutsi nire alabari, baina galtzen ari naiz. Eta nire kasuan, nire bikoteak ere ikusten zuen gure hizkuntza dela eta bera euskaltegian sartuta, euskal giro horretan sartzen hasi ginen. Niri alabak lagundu dit nire hizkuntza berreskuratzen”. “Etxean euskal giro hori ikusi behar dute umeek”.

Seme-alabek euskaraz ikasteko eta hitz egiteko garrantzitsua dela uste dute gurasoek ere erabiltzea. “Etxean euskal giro hori ikusi behar dute. Zaharrena orain hasi da erdaraz gehiago hitz egiten eta euskaraz egiteko esaten diot. Orduan, berak guri erdaraz entzuten digunean segituan esaten digu. Eta arrazoiak dauka. Nik esaten badiot euskaraz

egin behar duela guk ere egin behar dugu”, azaldu du Itsasok. Kanean edo helduekin aritzea hurrekin aritzea baino gehiago kostatzen zaiola ere aitortu du Alexek: “Hurrekin lotsa gutxiago ematen du hanka sartzeak”. Eta umeak berak euskaraz ikasten laguntzen duen galdetuta, beraien kasuan baietz dio Lasarteko bikoteak: “Alaznek bai, zuzentzen nau: Aitatxo hau ez da horrela esaten. Horrela eta horrela esaten da”, azaldu du Alexek. “Adinaren arabera da. Orain ulertzen du baita ere aita euskaraz ikasten ari dela eta lagundu egin behar diogula eta bera ere saiatzen da laguntzen. Eta nik uste dut hemendik aurrera gehiago lagunduko duela, bai berari eta baita niri ere”, gaineratu du Itsasok. “Euskara ikasteko, erabili egin behar da eguneroko bizimoduan. Zuk nahi baldin baduzu, badago aukera. Eskolako ekintza ezberdinen bidez, Solaskideren bidez... Aukera ezberdinak dituzu euskaraz aritzeko. Ez bakarrik euskaltegiak. Izan ere, jende asko joaten da bi orduz egunero euskaltegira eta gero handik aurrera akabo euskara. Eta niretzat horrek ez du balio ikasteko. Euskara erabili egin behar da eguneroko bizimoduan”. “Eta norberak ere bilatu egin behar du jende euskalduna. Norbera mugitu behar da”, dio Itsasok. Euskara ikasi eta ohitura aldatzea erraza ez den arren, beraien kasuan egon daitezkeen gurasoak euskararen aldeko pausua ematera animatzen dituzte, ahaztu gabe norberaren inplikazioa dela gakoa.



ALEX RAMOS ETA ITSASO IRAZUSTA  
LASARTEARRAK.

### DATUAK

Eusko Jaurlaritzak egin berri duen inkestan jasotzen denez, EAEko biztanleen erabilera, jarrera eta politikak aztertzen ditu inkesta honek, elebidunak diren biztanleen artean %17 dira euskaraz errazago hitz egiten dutenak, eta %61 dira gaztelaniaz erosoago aritzen direnak. Beren artean nagusiki euskaraz ari diren gurasoak ere %16 dira. Etxeko hizkuntzak (helduen artekoak) erabakitzen du, neurri handi batean seme-alaben erraztasuna eta, ondorioz, erabilera.

### JOSEBA SARRIONANDIA IDAZLEA

“Euskarak ez du oraindik bizileku habitable bat, dena egiteko dugu. Euskararen paradoxarik larriena da, euskara euskaldun guztien patrimonioa dela, baina, aldi berean, gutxi batzuen hizkuntza. Ahalegindu behar dugu euskarak izan dezan lekua, izan dadin zernahitarako erabilgarria”.

### IÑAKI LARRAÑAGA SOZIOLOGOA

“Kezkagarria da, jatorriz euskaldun izan eta euskaraz egiteko gaitasuna duen hainbat jende erdaraz aritzeko duen joera tamalgarria. Hor nire ustez gaitz gaizto bat dugu. Gure ondorengo belaunaldikoek, nahiz senar emazte edo guraso gazte, nahiz ezkongabeak, guztiak euskaldunak izan arren barra barra erdaraz hitz egiten dute. Gurekin eta hurrekin hitz egiteko erabiltzen dute euskara. Eta gehienak ikastolatik pasatakoak dira... Zer gertatzen da hor?”.

### “Seme-alabei euskara eman nahi genien, guk jaso genuen bazala”

**A**maiak eta Jonek 12 urteko alaba, Arrate, eta 9 urteko semea, Jokin, dituzte. Amaia eta Jon familia euskaldunekoak dira eta beti hitz egin izan dute euskaraz etxean. Gaztetan, ordea, Institutu garaiko urtetan, hain zuzen, gaztelera aritzen ziren etxetik kanpo, koadrilan, lagun artean eta baita beraien bien artean ere. “Inkoszienteki” egindako zerbaite izan zela diote, “makarra garai bat”. “Ohitura zegoen kanean gaztelera

egitekoa nahiz eta gehienok euskaraz jakin. Hemanin oso giro erdalduna izan da urte askotan”. Ohitura aldatu egin zuten, batez ere, seme-alabak izandakoan. “Elkarrekin bizitzen jarri ginenean, ez dakit, agian norberaren etxea delako edo, euskara zaintzen hasi ginen. Eta seme-alabekin oraindik gehiago. Argi genuen seme-alabei euskara transmititu nahi geniela, gure hizkuntza, guk jaso genuen bezala”.

# ZER ENTZUN, HURA ESAN



Hizkuntza-ohiturak etxean hasten dira

Gorka Urbizu Berri Txarrak taldeko kantaria, Hego Amerikatik bueltan

## “Etxean bezalako publikorik ez daukagu beste inon”

**J**akinmin handia pizten duen taldea da. Gure aldizkarian eta web orrian ipini ditugun lehiaketei erreparatzea besterik ez dago. Sarituen izenak noaua.com orrialdean aurkituko dituzue. Maite duen plaza dela Usurbilgoa eta oroitzapen ederrak dituela aitortu digu Gorka Urbizu kantariak, Hego Amerikatik etorri berrian.

**NOAUA!** Etxetik kanpo hainbeste denbora eman eta gero, Euskal Herrian jotzeko irrikitan egongo zarete, ezta?

Gorka Urbizu. Hala da, bai. Kanpora irtetea abentura moduko bat da eta mila esperientzia berri ekartzen dituzu bueltan, baina etxean daukagun publikoa bezalakorik ez daukagu beste inon, eta oreka horretan gustura aritzen gara, etxeko eta kanpoko birak tartekatuz, alegia.

### MAIZ IZAN DIRA USURBIEN

“Gogoan dut La Polla, Rip eta Su Ta Garrekin emandako hura, urduri nengoen oso!”

**N.** Zuentzat plaza gogoangarria izango da Usurbilgo frontoikoa, ezta?

G. U. Oroitzapen on asko dauzkat, hasteko txoznatan izan ginenekoa, 1999an edo. Bestela, makina bat Ikasle Gau-tan izan gara bertan. Gogoan dut La Polla, Rip eta Su Ta Garrekin emandako hura, urduri nengoen oso!

**N.** Lehen aldiz, Amerika aldeko hainbat herrialde bisitatu dituzue. Esaten den bezain beroa al da hango ikuslegoa?

G. U. Dudarik gabe Brasil eta Argentinako saioak izan dira beroenak. Rise Against-ekin jo dugu, 2.000 lagunentzako areto beteetan eta hori gauza handia da, sekula ahaztuko ez duguna. Topiko bat ere bada, Hegoameriketako jendea oso beroa dela kontzertuetan eta abar, baina bertatik bertara ikusi ondoren, uste dut baduela egiatik zerbait, batez ere Brasilgo jendea nabarmenduko nuke.

**N.** Japonen ere aritu zarete aurretik jotzen. Pentsatzen dut han egon eta gero,



SARRERAK ALDEZ AURRETIK KIROLDEGIAN ESKURA DAITEZKE. DESEGIN ETA ODDOLAREN MINTZOA ERE ARITUKO DIRA LARUNBATEAN.

horrelako ezbeharrak beste begi batzuekin ikusten direla.

G. U. Noski. Zorionez Japonian ditugun lagunak onik daude, baina izugarria da bertan gertatu dena. Japoniako tsunamiaren eraginez, gainera, Txileko kostaldeko hainbat herri hustu zituzten badaezpada ere, tartean San Antonio. Gu astebe te lehenago izan ginen bertan jotzen, pentsa. Gutxienez, oraingoan Txile libratu egin da, nahiz eta azkeneko lurrikararen zantzuak ikus daitezkeen han eta hemen.

**N.** Azken bira honetara itzuliz, euskaldun asko topatu dituzue bidean. Anekdotarik bai?

G. U. Harrigarria musikak daukan oihartzuna. Edozein Lehendakariaren bisita ofizialek baina askoz ere eragin handiagoa du Ameriketan Euskal Herriko musika mugimenduak, hasi RRV-tik eta gaurdaino. Buenos Airesen Cordobako (Argentina) tipo bat etorri zitzaidan, euskarako titulua atera berri bertako unibertsitatean. Nik galdetu nion arbaso euskaldunik ba ote zuen, eta berak erantzun, euskara garbi-garbian: "Ez, ez daukat euskal odolik, baina betidanik interesatu izan zait euskal kultura eta hizkuntza". Mikrofonotik behin baino gehiagotan esan nuen eta hala sinesten dut: bada zortzigarren probintzia bat EH-tik kanpo, Cordobako euskaldun horrek eta antzekoek osatzen dutena. Horretaz aparte, BTX musikalki ezagutzen zuen jendea ikusteak ere harritu gintuen. Buenos Aireseko

neska bat zeharo emozionatuta zegoen gu han geundelako, eta tatuaje bat ere erakutsi zigun, "Nacer.Música.Morir".

*Elkarrizketa, osorik, noaua.com web orrialdean.*

### Bidea zabaltzen

**O**tsailaren amaieran, Buenos Airesen oportetan zen hau idazten ari dena. Berri Txarrak-ekoak Rise Against taldearekin batera iragarriak zeuden Buenos Aireseko Groove aretoan. Beste bi talde ere aritu ziren han. Rise Against zen kartel buru eta jendetza bildu zuen, baina han bildu ziren askorentzat, gau hartako ezustea Berri Txarrak izan zen. Jendea kantu gehiago eske izan zuten emeraldia bukatu eta segidan.

**NOAUA!** Imajinatzen dut horrek guztiak, hara berriz bueltatzeko atek irekitzen lagunduko dizuela?

Gorka Urbizu. Lehen aldia zen guretzako Hego Amerikan, eta zure lehen kontzertua 2.000 lagun aurretan ematea sekulako aukera da. Berrogei minututan dena ematera atera ginen eta jendearen erantzuna oso ona izan zen, bai. Curitiba emeraldia (Brasil) demasa izan zen, youtubean ikus daitezke irudi batzuk eta oraindik oilo-ipurdia jartzen zaigu.

## Udalbatzak ere Gernikako Akordioarekin bat egin du

**G**ernikako Akordioaren aldeko atxikimenduak hedatzen doaz. Herriko hainbat elkarte eta taldeekin batera, martxoaren 29ko osoko ohiko bilkuran, udalbatzak ere bat egin zuen "Bake bidean aterabide demokratikoen akordioa"rekin, Gernika-Usurbil (GU) taldeak udal txean aurkezturiko mozioarekin alegia. Gainera, presio politikoen aurrean, Sortu alderdiaren erregistroa debekatzeko Espainiako Auzitegi Goreneko 61. Aretoak hartutako erabakia ere salatzen du mozioak. Horri lotuta, apirilaren 2an, "Euskal Herrian normalizazioa. Legalizazioa orain!" lemapean Bilbon deitua zegoen manifestaziora joatera deitzen zituzten herritarrak.

Onartutako mozioaren baitan, udalbatzak beste zenbait erabaki ere hartu zituen. Otsailaren 13an sentsibilitate ezberdineko 48 udal hautetsik Sutegin Gernikako Akordioari sinadura bidez erakutsitako atxikimendu sorta Udal Artxibo Nagusian gordeko da, erabakiaren ziurtagiriarekin batera.

Bestalde, Udarregi ikastolatik behera Kaxko aldera datorren ibilbideak Gernika izena duenez, GU bilgunekoek Picassoren Gernika zeramika lan batean birsortu eta izen bereko kalean kokatzeko asmoa dute. Udalbatzak horretarako



UDAL KORPORAZIOA, PASA DEN ASTEAN EGINDAKO PLENOAN.

baimena eman zien azken osoko bilkuran onartu zuen mozioan, baita beharrezko laguntza ematea ere, Buztinzulo Keramika Taldearekin lankidetzan. Udaletik 1.500 euroko laguntza bideratuko da baita, Gernikako Akordioa herritarren artean zabaltze aldera, GU taldekoek prestatu duten gehigarria.

Mozioari osoko zuzenketa aurkeztu zion Alkarbide udal taldeak. ETA, Auzitegi Nazionala eta Alderdi Politikoen Legea desagertzea eskatzearekin batera, ideia eta proiektu guztiak demokratikoki defendatzeko eskubidea aldarrikatu zuten, baita Eusko Legebiltzarra desegin eta egungo egoera aintzakotzat hartuko duen Legebiltzar berria osatzea ere.

### Bi hitzaldi antolatu dira

**A**terabide demokratikoak hizpide izango dituzten bi hitzaldi antolatu ditu Gernika Usurbil taldeak. Honakoak:

**Apirilak 8, ostirala**  
Hizlaria: Iñaki Aldekoa.  
Ordua: 19:00.  
Tokia: Sutegiko auditorioa.

**Apirilak 15, ostirala**  
Hizlaria: Floren Aoz.  
Ordua: 19:00.  
Tokia: Sutegiko auditorioa.



KANTU TALDEKOEK, AKORDIOAREN ALDEKO ARGAZKIAN.



BERTSO ESKOLAKO IKASLEAK, ATXIKIMENDUA EMATEN.

**JOSETXO IKATZETA**  
Iturgintza  
TEL: 943 36 20 26  
687 95 12 25

**TAXI**  
607 92 87 70  
943 00 44 83  
Angel (24h) USURBIL

**txirriStra**  
KONTSEJUZARRA 13  
943 360 466  
pintxoak  
ogitartekoak  
plateer konbinatuak **TABERNA**

## Datorren astean irekiko da Haur Eskolan matrikulatzeko epea

**D**atorren ikasturterako matrikulazio epea zabaltzeaz da Haur Eskolan. Deialdia 2009-11 artean jaiotako haurren gurasoei zuzendua dago. Apirilaren 11tik 20ra eta maiatzaren 2an eta 3an informazioa jaso eta izena emateko aukera egongo da Kalezarreko eraikinean, astelehenetik ostiralera 9:30-12:30 artean edo 943 374 061 telefono zenbakian. Informazioa eskatu edo zalantzak argitzera, gurasoak lasai bertaratzera deitzen dituzte Haur Eskolatik, alde zuzenetik hitzordua eskatuta.

**NOAUA! Eskaria eskaintza baino handiagoa izan ohi da. Aurtengorako zer aurreikuspen dituzue?**

**Vero Manterola.** Txikia geratu zaigu, eraikuntza osoa hartu dugu jada. Ahal ditugun plazak eskaintzen ditugu, espazioak uzten diguna. Egia da, kanpoan gelditzen direla haur dezente. Eta gainera, Usurbilgo Haur Eskolan batzuetan eskaera dago ez bakarrik herritik, baita Lasarte-Oriatik edo Oriotik. Hauek ordea itxaron zerrendan egon behar dute, aurrena usurbildarrak sartzen baitira.

**N. Baldintzen artean, lehenetsuna usurbildarrek dute ezta?**

**V. M.** Usurbilen erroldatua egotea eskatzen da. Zozketara joan aurretik, badira beste zenbait baldintza gehiago puntuatzen dutenak. Behar bereziak dituzten haur edo familien, guraso bakaarren edota biki zein hirukiak dituztenen egoerak kontuan hartzen ditugu eta horiek puntuazio gehiago dute.

**N. Zozketaren prozedura zein da?**

**V. M.** Haur berrientzat eskaintzeko zenbat plaza ditugun ikusi ostean, gurasoei jakinaraziko zaie. Hurrengo pausoa zozketa egitea litzateke. Lehen aipatutako egoera berezian dauden haurrak normalean zozketarik gabe sartzen dira, puntuazio gehiago izaten baitute. Paretsu dauden beste guztiek, horiek zozketara doaz. Nahiko plaza baldin badaude, denak sartzen dira zuzenean. Baina ez daudenean ez.

### VERO MANTEROLA

“Ahal ditugun plazak  
eskaintzen ditugu,  
espazioak uzten diguna”

**N. Haur Eskolari dagokionean, zer zerbitzu eskaintzen dituzue?**

**V. M.** 7:30-17:00 artean dago aurten irekia, krisiaren eraginez edo egun osorako eskaria gutxitzen joan baita. Hurrengo ikasturtean zer ordura arte irekia egongo den ez dakigu, eskariaren arabera izango da. Bestalde, oso malguak gara. Txikiak 10:00ak arte dute sartzeko aukera, eguerdian atera edo arratsaldera arte egon eta bertan askaltzeko aukera dute. Bularra emateko amei Haur Eskolara etortzeko aukera ematen zaie. Janari ekologikoa dugu, bertan dago sukaldaria. Aukera asko ditugu. Gure irizpide eta metodologia daude bestalde. Psikomotrizitate gelak, garrantzia handia duena adin hauetan. Mugimendu librean sinesten dugu eta haurren erritmoa erres-



KALEZARREN DAGO HAUR ESKOLA.

petatzen dugu eremu guztietan; bai mugimendu, elikagai eta atsedenean. Herriko eta bertako kulturari garrantzia handia ematen diogu. Irteerak burutzen ditugu herritik barrena. Eta gurasoekiko harremana zutabe nagusietako bat da.

**N. Zuena, ez da noski haurtzaindegia. Zer bereizgarri ditu Haur Eskolak?**

**V. M.** Haurtzaindegia erabat asistentziakoa dela ikusten dugu. Gurea harago doa. Oinarritzko beharrak asetzen saiatuko gara, baina lehen esan bezala, geure proiektu eta helburuak ditugu, harago doazenak. Haurren heziketa, autonomia, dena lantzen da.

### Aginagako Txokoak, Aste Santuko egunetan

**A**ste Santuko egunetarako txokoak antolatu ditu Aginagako Antxomolantxa elkarteak. Egun hauek egongo da zabalik: apirilaren 18, 19, 20 eta 23an eta apirilaren 26tik 30era. Ordutegia, hauxe izango da: 10:00-13:30. Izena emateko 610 875 287 deitu behar da baina kontuan izan plaza mugatuak izango direla.

## Lanbide Hastapeneko ate irekien eguna, ostiral honetan

**A**tallun kokatua dagoen Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programa gertutik ezagutzeko aukera izango da, ostiral honetan, apirilaren 8an. Ate-irekien eguna antolatu dute, goizeko 11:30etik aurrera. Sukaldaritza eta ile-apainketa ikastaroak aurkeztuko dira bertan. Helburu desberdinak izango ditu eki-

taldiak. Deitzaileek argitu dutenez, “gure ikastetxeko programa pedagogikoa ezagutzeko, bertan lan egiten dugun hezitzaileak ezagutzeko, ditugun instalakuntzak ikusteko eta dituzuen kezkek eta galderak argitzeko”.

Atallu poligonoko egoitzan burutuko dute ekitaldia, Zanziura kalean, 3. zenbakian (943 36 04 65).

Lanbide Hastapena, DBH-n graduatu lortu ez eta titulurik gabe kalean geratzen diren gazteei zuzendua dago, baita ikasten jarraitu nahi ez eta lanbide bat ikasi nahi dutenei, behar bereziak dituztenei edota egoera sozio-familiar desegoki baten ondorioz noraezean dabilzane. Berezi, emakumeen aldeko apustua ere egiten dute.

# Inoiz baino korrikalari gehiago Aginagako Lasterketan

**A**ginagako Mendi Lasterketak marka guztiak hautsi ditu. 200 korrikalari baino gehiago animatu ziren pasa den igandean, ibilbideko 14 kilometroak osatzera. Eguraldiak ez zuen asko lagundu, bereziki, bide bazterretan animatzen egoteko. Korrika egiteko ordea, ez zen giro txarrena izan. Faboritoek kale egin zuten eta ezusteak nagusi izan ziren, gizonezko zein emakumezkoen sailkapenetan.

Gizonezkoen artean, Sestaoko Walter Becerra zen faborito nagusia baina helmugara iristen lehena Aboelfettah Loujari izan zen.

Becerra segundu gutxira iritsi zen eta hirugarren Igon Manzisidor Deba-Itziar triatloi taldeko kidea izan zen. Loujari irabazlea Marokon jaioa da baina Nafarroako Zizur Nagusian bizi da duela hiru urtetik hona.

Emakumezkoen artean, Oihana Kortazar izan zen lehena helmugara iristen. Bigarren postuan Alizia Olazabal iri-



IRITSI ETA BEREHALA, HAMAIKETAKO EDERRA ZUTEN ZAIN FRONTOIAN.

tsi zen eta hirugarren Nerea Amilibia izan zen.

## Estevez, Aginagako lehena

Aginagako lehen korrikalariak saria zuen eta Juanjo Estevez izan zen lehena iristen. Frontoian egin zen sari banaketa eta giro ederrean izan ziren elkarrekin, korrikalariak eta ikusleak, antolatzaileek banatutako hamaiketakoan.

## Herritar korrikalarien denborak

Mikel Alkorta Alustiza	1:10:45	Guillermo Rueda Etxeberria	1:23:12
Juanjo Estevez Martin	1:12:21	Agustin Begiristain Puertas	1:25:25
Koldo Lertxundi Azkue	1:13:54	Alfonso Vidal Urdampilleta	1:25:30
Beñat Bereziartua Urretabizkaia	1:15:13	Imanol Esnaola Arrillaga	1:28:59
Mikel Tena Davila	1:15:21	Andoni Udabe Astigarraga	1:29:39
Aritz Holgado Esnaola	1:15:24	Imanol Zarautz Bengoetxea	1:29:42
Xabier Udabe Pagola	1:15:30	Antonio Gallego García	1:31:51
Igor Maiz Pagola	1:15:32	Ana Alzugarai Garcia	1:32:44
Jose Maria Seoane Mayoz	1:16:25	Kerman Rekondo Arzallus	1:34:00
Abbat Maioz Mancisidor	1:18:44	Ekhi Arrieta Del Pico	1:34:31
Tito Izaguirre Godineau	1:19:52	Jon Begiristain Agirre	1:34:39
Joseba Rezola Eizaguirre	1:20:18	Andoni Arruti Beldarrain	1:35:24

\* Iturria: [www.herrikrossa.com](http://www.herrikrossa.com)

## Usurbilgo Pilota Txapelketa, asteburu honetan Aginagan

### Apirilak 9 larunbata

Aginagan, goizeko 10:30ean

Jubenilen mailan

Zendoia-Zinkunegi/Gallurralde-Erostarbe  
(Usurbil) (Urretxu)

Nagusien mailan

Urmeneta-Aranalde/Fernandez-Goikoetxea  
(Añorga) (Usurbil) (Alde Zaharra)

Atxotegi-Irureta/Mendizabal-Labaka

(Elgeta) (Usurbil) (Bidegoien)

### Apirilak 10 igandea

Aginagan, goizeko 10:30ean

Jubenilen mailan

Maians-Iribarren / Loitegi-Lizaso  
(Burlata) (Urnieta)

Alberdi-Lizaso / Arizmendi-Apeztegia  
(Añorga) (Baztan)

Nagusien mailan

Azpiazu anaiak / Loidi-Fernandez  
(Gasteiz) (Añorga)

**OHARRA:** Martxoaren 31n itsuen azken 4 zenbakiekin egin zen zozketaren zenbaki irabazlea 9524 izan zen.

## Igandean, Zarautz-

### Usurbil ibilaldi neurtua

**A**ndatzakoak deituta, goizeko 7:00etan elkartuko dira tren geltokian. Zarautzeraino trenez joan eta han hasiko dute ibilaldi neurtua. Izena egunean bertan, 5 euro ordainduta. Hortik aurrera, 32 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Eta zazpi bat orduren buruan iritsiko dira herrira ([www.andatza.com](http://www.andatza.com)).

## Xabi Bengoetxeak irabazi zuen Amaika Bat lasterketa

**D**ebako junior mailako txirindulari lasterketa irabazi zuen pasa den igandean Buruntzazpi elkarreko txirindulariak. Apirilaren 16an, Zumaian arituko da Euskadiko selekzioaren mailota soinean jantzita.

## Udaberri Pilota Txapelketa

**APIRILAK 7, 20:00 AGINAGAN**

Kadeteak 1. maila

Artetxe - Telleria (Usurbil)

Nagusiak

Etxeberria - Urruzola (Usurbil)

Fernandez - Mendizabal (Usurbil)

**APIRILAK 8, 18:30 AGINAGAN**

Kadeteak 2. maila

Ibargarai - Portullarrume (Usurbil)

**Jubenilak 1. maila**

Etxeberria - Zinkunegi (Usurbil)

Nagusiak

Zinkunegi (Usurbil) - Gesalaga (Usurbil)

Odrizola - Katalina (Usurbil)

# Bi hitzaldi eta azoka antolatu ditu Nafartarrak kultur taldeak, datorren asterako

**1** 512. urteko Nafarroako konkistaren bosgarren mendeurrena ate joka dugun honetan, Nafartarrak Kultur Taldeak, Etumeta Euskaltegiak eta Usurbilgo Udalak ekitaldi sorta antolatu dute datorren asterako. Apirilaren 16rako NabarrHerri azoka eta kultur-gunea, eta alde zuzenetik, aurpegi ezagunek parte hartuko duten bi hitzaldi lotu dituzte.

Lehenengo saioan, Pako Aristik "alderdikrazia" hartuko du ahotan. Datorren asteartean, hilaren 12an izango da eta bi egun beranduago, Aristi bera gidari eta galdetzaile lanetan jarrita, heziketa politikoaren beharrez jardungo du, ibilbide luzeko musika ezagun batek; Benito Lertxundik.

Euskal kultura eta nafar identitatea gizarteratzen jarraitzeko lan horren testuinguruan antolatu dute baita, NabarrHerri azoka eta kultur-gunea. Iraganera bidaia proposatzen dute, orain beste modu batean ulertzen laguntzeko. Errealitate historiko gisa Euskal Herriak jasandako konkistetako baten bosgarren mendeurrena gogorarazteko urtebete falta den honetan, antolakun-

tzatik azpimarratzen dutenez, "memoria berreskuratzea garrantzizkoa zaigu. Mitoetan oinarritu izan gara maiz, eta, askotan, kanpotik ezarritako historian, aipatutako konkista horietan garaile izan direnek ezarritakoan". Memoria berreskuratuta, errealitatea beste modu batean ulertuko litzatekeela.

## Korrika 17rekin bat

Hilaren 16an frontoian eta Dema plazan zabalduko den ekimenak bide horretan ekarpena izatea nahi dute antolatzaileek. Bi ardatz nagusi izango ditu; batek, 25 saltoki inguruk osatuko duten Euskal Herriko ekoizleen produktuez hornituriko azoka zabalduko da. Bestetik, kultur gunea ere izango da. Egun osoko egitaraua prestatu dute antolatzaileek, asmookin; "euskal kultura sustatzea, nafar identitatea lantzea eta bertako produktuak merkaturatzea". Musika, antzerkia, ikuskizunak, bazkaria...

Aipatzekoa da herritarren parte hartzea ere. "Ganboatarrak eta oinaztiarrak" antzezlan eskainiko baitute, besteak beste, Alex Tello eta Ixabel Agirresarobek. Apirilaren 17an Usurbildik igaroko den Korrika 17ren



BENITO LERTXUNDI DATORREN  
ASTEAN IZANGO DA SUTEGIN.

kanpainaren barruan txertatua dago, bezperan ospatuko den NabarrHerri egitasmoa.

## Hitzaldiak

**APIRILAK 12, ASTEARTEA**

19:00 Hitzaldia Sutegin. Gaia: "Alderdikrazia, etorkizunik gabeko panorama". Pako Aristi. Sarrera doan.

**APIRILAK 14, OSTEGUNA**

19:00 Hitzaldi-solasaldia Sutegin. Gaia: "Heziketa politiko baten beharrez, Benitorekin solasean". Hizlaria: Benito Lertxundi. Galdetzailea: Pako Aristi. Sarrera doan.

## Apirilak 16 larunbata, Nabarrherri azoka

10:30 Azokaren irekiera.

11:30 Hitzaldia: 1512 Nafarroaren konkista. Nafarroa bizirik aurkezpena.

12:30 Antzerkia: Ganboatarrak eta oinaztiarrak.

13:00 Kantaldia: Jean Bordaxar, Robert Larrandaburu, Jean Noel Pinque eta Jean Pierre Luro. Ondoren, bazkaria. Bazkarirako txartelak hartzeko Etumeta euskaltegira deitu: 943372001.

15:00 DVD emanaldia: Gipuzkoaren

jatorria.

16:00 Ipuin kontaketa: Arrain-herriaren memoria galdia.

17:30 Hitzaldi musikatua: Euskal musika modernoaren historia. Andoni Tolosa "Morau".

19:30 kontzertua: Laur folk taldea.

*Egun osoan zehar, "1512 Nafarroaren konkista" erakusketa iraukonra eta euskal produktuen azoka izango dira.*

## Gozogintza ikastaroa

### Etumeta euskaltegian

**K**orrika azken egunean iritsiko da Kigure herrira, apirilaren 17an goizaldeko 7:06 aldera. Honen harira, gozogintza ikastaroa antolatu da Etumeta euskaltegian. Igor Gorriti izango da irakaslea eta datorren asteazkenean eskainiko du ikastaroa, 19:00etan euskaltegian bertan. Ikastaroa doan da baina izena eman behar da alde zuzenetik euskaltegian, 943 372 001.

**USURBIL AUTOAK**  
-TAILERRA - KARROZERIA - KOTXEEN SALMENTA

 **SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!**

zerbitzu ofiziala  
Zumartegi industrialdea

 943 36 10 79

teilatuak eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**



Obaba kalea 29 - ASTEASU  
© 943 69 68 52 - 620 800 186



## Agenda!

**Apirilak 8 ostirala**  
- Hitzaldia Sutegin. 19:00etan  
Iñaki Aldekoaren eskutik.  
- Laburbira. 22:00etan Sutegin.

**Apirilak 9 larunbata**  
22:00 frontoian, Berri Txarrak,  
Odolaren Mintzoa, Desegin. Sarrera  
10 euro alde aurretik kiroldegian; 12  
euro egunean bertan.

**Apirilak 10 igandea**  
Gipuzkoako Haur Kantari  
Txapelketa. 18:00etan Sutegin.

**Apirilak 12 asteartea**  
Hitzaldia Sutegin, 19:00etan Pako  
Aristiren eskutik.

### Goardiako farmaziak

Apirilak 7, osteguna  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Apirilak 8, ostirala  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Apirilak 9, larunbata  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Apirilak 10, igandea  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Apirilak 11, astelehena  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Apirilak 12, asteartea  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Apirilak 13, asteazkena  
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Apirilak 14, osteguna  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Apirilak 15, ostirala  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Apirilak 16, larunbata  
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Apirilak 17, igandea  
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

\* Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak  
irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
Aizpurua, Latxunbe Berri, 11, Hernani  
Telefono zenbakia: 943 336 077.

## Santueneko jubilatuz elkartekoen omenaldia jaso dute

Santueneko jubilatuz elkartekoa Aialde Berrin bildu ziren pasa den igandean. Irudikoak, 75 urte bete dituzten auzotarrak dira: Alicia Ladero, Floripe Hernandez, Juan Bautista Balerdi, Juan Bautista Padrones, Francisco Alvarez eta Miguel Ramos. Euren bizilagunen omenaldia jaso zuten. Argazkian, plaka banarekin.



AIALDE BERRIN EGIN ZEN EKITALDIA.  
IRUDIAN DIRA OMENDUAK.

### Ostiralean, "Laurbira" film laburren proiektzioa



Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak jarri zuen duela zortzi urte "Laurbira" izeneko ekimena martxan. Aurten ere, Euskal Herriko hainbat tokitan ikus ahal izango da film laburrei eskainitako zikloa. Usurbilen, ostiral honetan hain zuzen, gaueko 22:00etatik aurrera Sutegin. Sarrera doan da.

Asier Altunak eta Angel Aldarondok "Artalde" eta "Ondar ahoak" film laburrak aukeztuko dituzte aurtengo "Laurbiran". Hain ezagunak ez diren zuzendarien lanak ere ikus ahal izango ditugu: Kepa Errasti, Jon Artola, Saio Aizpurua Txintxetilla, Aitor Artola, Irune Gurtubai eta Ibai Vigil-Escalera. 78 minutu iraungo ditu proiektzio osoak.

### Igandean, Gipuzkoako haur kantari jaialdia

Euskal herriko Haur Kantari Txapelketa nagusia ekainaren 11n burutuko da Hazparnen. Gipuzkoako ordezkariak hautatzeko garaia da orain. Larunbatean Beasainen eta igandean Usurbilen egingo diren saioetako onenak sailkatuko dira Gipuzkoa ordezkatzeko. Igandeko saioa 18:00etan hasiko da Sutegin. Helduentzat sarrera 5 euro. Gaztetxo eta Kantuzaleen Elkarteko bazkideentzat, 3 euro.

### Txotxongiloak udal liburutegian

Datorren asteazkenean, apirilak 13, Gus txotxongilo taldea hurbilduko da udal liburutegira. 18:00etan hasiko da emanaldia eta 6-9 urteko haurrei zuzendua dago. Sarrera doan da.



**TXAPELDUN**  
**TABERNA**  
razioak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak...  
Muna lurrea 2, 943 11 82 53

ZUBIALURRENEAN USURBIL  
ileapaindegia  
mistoa  
943361951

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13  
Okindegia - Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**Patri Jatetxea**  
K/nagusia 14. © 943 362 725

## ETXEBIZITZA

- 85metro karratuko etxebizitza bat alokatzen dut Usurbilko Kaxkoan. 3 gela, bi terraza eta trasteroa. Bermea eskatuko da. 616064059 (gauetan deitu).
- Usurbilen alokaruan dagoen pisu baten bila nabil. Idoia 695733535.
- Kaxkoan pisua alokatzen da. 2 gela, sukaldea, sala eta komona. Tlf: 670070562
- Santuenean etxe bat alokatzen da. 679 366 415.
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan, 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena bermituta eta amueblatuta. Igozailua, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. Tlf: 686969112
- Kaxkoan etxebizitza salgai. Hiru logeladuna, bi komun eta trasteroekin. 685 731 792.
- 90 metro karratuko pisu bat daukagu salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, bi komun eta 7 metro karratuko ganbara bat. Oso eguzkitsua eta bizitzan jarzteko moduan dago. 699680265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu).
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 130.000 euro. 665 736 896 (Inaki).
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden, Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska eskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat salgai Alfaron (Errioxa). Astebukaerak eta oporraldiarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herriatik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna, portxea. 675702428 (gauetz).
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta bermituta. Interesatuak deitu: 637225620.
- 95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldatetako egiteko aukera asko. 141.000 euro. 943 36 98 35 (21:00etatik aurrera).
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailen. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baseri bat alokatu nahi nuke. Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. 669645585 edo 94336191.
- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150 sagarrondorekin. Deitu: 943 361 463
- Nissan Almera salgai. Matrikula: SS-BG. Prezioa: 1.500, IAT (ITV) pasea du. 615 798 479.
- Garaje Ierroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- 33m karratuko lokal bat alokatzen dut Atxegalden 280 eurotan. Sarrera egokia. 943373414
- 50cc-ko motorra salgai. 2 urte, oso kilometro gutxi. Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.
- Atxegalden Anstuxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

## LANPOSTUAK

## Lan-eskaerak

- Emakume bat behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. Interesatuta bazaud 615756893.
- Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabilta. Banaketa afitararako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arrasaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabilta. Nahiago dugu Usurbilgoa eta eskalduna izatea. Interesatuak deitu 676355635 telefonora.
- LH-n edota DBH-n klase partikularak emateko prest egongo al zinate? Hala bada, pasa zaitez Udarrégi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

## Lan-eskaintzak

- Garbiketa lanetan edo dendari moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Herriko emakume eskaldun bat eskaintzen da pertsona helduak eta gaixoak zaintzeko. Orduetegi malgua (egunez zein gauetz) eta prezio ekonomikoak. 687348223.
- Emakume esperientziaduna eta erreferentziak eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularak ematen ditu ikasgai guztietan. Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baseri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltsaritza lanetan aritzeko. 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein

- haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Inaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendiako edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klase partikularak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- "Cama nido" bat daukagu behar duenari emateko. Egur kolorezkoa eta urdina da. 1,90x0,90 neurritakoa. Interesatuak deitu 650521750.
- Umea kotxean eramateko ziurtasun aukia (10 kilotik gorakoa eta etzaten dena) erosiko nuke. Tlf: 658721427
- Kamera digital bat desagertu zitzaigun liburuetan, marxoaren 11n. Asko eskertuko da bueltatzea. 686 554 145 (Ana).
- Sukaldari bat eskaintzen da famili nahiz lagun arteko bazkariak antolatzeko eta prestatzeko etxetan, elkarte gastronomikotetan..... 670 410 273.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. Interesatuta bazaud: 669645585 / 943365191.
- 11 husky siberiar txuri oparitzeko. 649906678.
- Andatza mendian (Puelako bidean) mendiko txamarra mutilarena, urdin iluna, galdut. 657702038.
- Umea eramateko "mendiko motxila" erosiko nuke. 647973854.
- Hemengo intxaurrak salgai, prezio onean. Telf: 943 67 11 60. Edume.
- Su-egurra salgai modu onean. 689937338 Jesus Mari.
- Wii kontsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren koptak kargatu ahal izateko. DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Garantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikulu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari linkoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113



**Zorionak Aitor!** 6 urte martxoaren 31an. Zure urtebetetzean ondo pasako zenuela espero dugu. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez!



**Zorionak Xuban!** 6 urte bete dituzu apirilaren 4an. Muxu asko eta zorionak familiaren partetik.



**Zorionak Unai eta Julen!** Unaiak 12 urte apirilak 7an eta Julenek 8 urte apirilaren 8an. Zorionak eta besarkada handi bat bieci gurasoen partez! Ondo pasa bikote!



**Zorionak pilotari!** Ez irakurri zure horoskopoa baina zorte ikaragarria izango duzula uste dugu (begiratu data 11-04-11an 11urte!). Aginagako herri eskolaren partetik zorionak eta ondo pasa!

## HILDAKOAK

**Eustaki Kamino Ibargoien** Martxoaren 30ean hil zen 85 urterekin, Aginagan



## HILDAKOAK

**Efrain Ruifernandez Bombin** Apirilaren 4an hil zen 93 urterekin, Usurbilen



Oharrak, zorion agurrak, jaió edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 12:00etan. E-posta: erredakzioa@noaua.com

KALITATERO  
**EUSKAL OKELA**

**ALKORTA AUTOZERBITZUA**

Frutak Barazkiak Etxeko produktuak Izoztuak

Beheko kalea, 4  
Telf: 943 36 57 42

Papera jartzea eta Pinturak orokorrean

**FERNANDO PINTORAK**

943 366 019  
943 363 460

Kale Nagusia 1 - USURBIL

**LAUKOTE**

OKINDEGIA  
KAFETEGIA

Puntapax kalea, 16 behea (Artzabal) 943 36 09 80

ARETO  
 NAGUSIAN  
*Etorri aurretik  
 izena eman!*

**902 110 436**  
[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

# ATE IREKIAK

**Enpresagintza Fakultatea**

**IRUN** **APIRILAK 9** larunbata, 11:00

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea**

**ESKORIATZA** **APIRILAK 14** osteguna, 18:00



Sarrerren salmenta

**bastero** KULTURGUNA  
**kuixa** SERIKUTZA KUTXAZANAK  
 943 00 12 00  
[www.kuixa.net](http://www.kuixa.net)



ANDOAINGO UDALA Gizeko Foru Aldekoa



**bastero**  
 KULTURGUNA

**Jinjo Crew**  
 APIRILAK 8, Ostirala, 21:30h Auditorioan

**Joseba Tapia "Eta Tira eta Tunba"**  
 APIRILAK 9, Larunbata, 20:00h Ekitaldi aretoan

**Golden Apple Quartet & Kanpingags**  
**"Goibel"**  
 APIRILAK 10, Igandea, 17:00h Auditorioan

Basterock gauak-2 **"Kim Lenz & The Jaguars"**  
 APIRILAK 16, Larunbata, 22:30h Auditorioan

Andoain Ekitaldiak

Informazio gehiago: 943.303.540 [www.andoain.org](http://www.andoain.org)

# TXOTX!!



Tel.: 943 365 031

Mugikorra: 670 027 731

Santuenea



## LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarriletik apirilera  
TXOTX GARAIA  
Ostiral, larunbat eta igande  
eguerdietan IREKITA  
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserría Ereñotzu - Hemani

Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867



## SAIZAR Betiko Sagardoa

Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel. 943 362 228

www.sidrassaizar.com



## ELUTXETA SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



ERRETEGIA-NEKAZALTURISMOA

## ARRATZAIN TOLARE-SAGARDOTEGIA

Egunero irekia.

Arratzainzar Baserría  
info@agroturismoarratzain.com

Tel: 943 36 66 63

20170 USURBIL



☎ 943 36 12 29

Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak  
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL

www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com

## AGINAGA

Sagardotegia

Urte osoan txotxetik

Estrata kalea, 7  
Aginaga auzoa, USURBIL

Tel. eta Faxe: 943 36 67 10

Tel.: 943 37 06 68

a.sagardotegia@aginasagardotegia.com

